

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Mendexa*



Aurkibidea

# Udalerria: Mendexa

## Sarrera



Bizkaiko ipar-ekialdean dagoen udalerria da, kostaldean eta Lea-Artibaiko eskualdean kokaturik. Herriaren erdigunea itsasotik urrun dago, barrualdean, muino baten gainean. Mendexak guztira lau auzo dauzka: Iturreta, Leagi, Likona eta Zelaia (erdigunea). Kantauri itsasoarekin egiten du muga iparraldean, Lekeitiorekin ipar-mendebaldean (berez, Lea ibaiak banatzen ditu Lekeitio eta Mendexa), Ispasterrekin mendebaldean, Amоротorekin hego-mendebaldean, eta Berriatuarekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 405
- **Euskaldunak:** %90,55

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **2**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **0**

## Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Lea-Artibaiko ahotsak

## Hizlariak

### **Maria Agirre Eiguren (1924)**



1924ko otsailaren hamazortzian jaio zen Mendexako Likona auzoko Sebastiañekoan. Bere aita Urrestillakoa (Gipuzkoa) zen, Inazio "Probintzianua", eta ama bertakoa. Bost neba-arrebatatik bera da gazteena. Sei urtegez Zestoara joan zen izeko baten etxera bertako Santa Kruz kalera, eta hiru urte pasa zituen bertan. Gerra orduko Lekeitiora joan ziren bizitzen, bere aita baitzen portuko arduraduna, eta Lekeitioko kolegioan ibili zen orduan. Aita gerran hil zen, eta ostean Mendexara bueltatu ziren. Ereñoko Arrupe baserriko Leandro Alzibarregaz ezkondu eta lau alaba izan zituzten.

### **Justa Laka Argoitia (1920-2018)**



Zelaia auzoko Agirrebekoa baserria jaio zen 7 neba-arreba artean. Aita bertakoa zuten eta ama Berriatukoa, biak baserritarrak. Umetan gutxi joan ei zen eskolara, gutatu ere ez zitzaion askorik gustatzen-eta. Baserriko beharretan aritu zen txikitatik. Auzoko batekin ezkondu ostean, handik urte batzuetara kostako bidean dagoen Itxasalde taberna zabaldu zuten. 5 umeren ama. Bere ahizpa [Raimunda](#)rekin batera kontatu zizkigun antzinako kontuen berri: haitzetako arrantza, Gerra Zibilean 7 hilabetez frontearen erdian bizitakoak, gaztetako ibilerak...

### **Raimunda Laka Argoitia (1922-2024)**



Zelaia auzoko Agirrebekoa baserria jaio zen 7 neba-arreba artean. Aita bertakoa zuten eta ama Berriatukoa, biak baserritarrak. Eskolan abila izan arren, ikasketak utzi eta baserriko beharrei ekin zien. 7 urtez, Gerra Zibila tartean, Arropainene gon zen ahizpa baten etxean. Bere ahizpa [Justa](#)k lagunduta eman zigun antzinako kontuen berri: haitzetako arrantza, Gerra Zibila, ipuin herrikoiak...

### **Hilari Laka Kortabitarte (1925-2026)**



Mendexako Uskola baserrikoa. Bere ahizpa [Nekane](#)rekin batera egin zitzaizkion hainbat elkarrizketa (argazkian eskumakoa da Hilari). Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

### **Nekane Laka Kortabitarte**



Bere ahizpa [Hilari](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa (argazkian ezkerrekoa da Nekane).

### **Jose Mari Plaza Agirre (1950)**



Guraso biak Mendexakoak zituen. Beaskoa baserrikoa, lau senidetan gazteena. Bere arreba Petra 1971n Ameriketara joan zen eta bera ere bai, 1973an. Hiru urteko kontratuarekin joan zen, ardi-lanera, Hagermanera (Idaho); "campero" ibili zen. Beste bi ardi konpainiatan ere ibili zen lanean ondoren. Euskal Herrira bueltatzeko asmoa zuen hasieran, baina Maria izeneko emakume mexikar bat ezagutu, eta bertan geratu zen: ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. 34 urtean animalien jatekoa prestatzen zuen enpresa batean egin zuen lana. Euskal komunitatean aktibo ibili da, Gooding-en (Idaho) bereziki. Urte gehien Fillerren (idaho) bizitzen egin ditu.

### **Petra Plaza Agirre (1946)**



Guraso biak Mendexakoak zituen, baserritarrak. Beaskoa baserrian bizi ziren. Lau senidetan bigarrena, 14 urtera arte Mendexako eskolan ibili zen. Josten ikasten aritu ostean, Lekeitioko bitxi-denda batean egin zuen lana, hiru urtean. Baserriko lanetan ere ibili zen. 1968an Ricardo Bengoetxearen ezkondu zen (zortzi urtean Australian egon zen eta, anaia Ameriketara zeukanez, hara joateko gogoz zegoen). 1968an senarra Ameriketara joan zen artzain (Hagermanera, Idahora), Petra haurdun zegoela, eta 1973an Petra eta alabatxoa joan ziren hara. Bigarren alaba Ameriketara jaio zen. Filer herrian bizi izan ziren. Petra hasieran umezain ibili zen lanean eta gerora zahar-egoitza bat garbitzen (28 urtean). Euskal komunitatean oso aktibo egon da, bereziki Goodingeko euskal klubean: sukaldean, dantzarien arropak josten... bi alabak dantza taldean ibili ziren; biek dakite euskaraz.

## Jose Txakartegi Zendoia (1931-2024)



1931ko martiaren 23an jaio zan Mendexan, Santioenea baserrian. Bederatzi neba-arrebatatik bigarrena da bera. Baserrian bertan egin du beharra ia beti, nahiz eta beste baserrietako basoetan ere ibili zen. Gainera, Eigureneko zerran ere ibili zen. Umetan elizako antzerki taldeari eta etxean bizi zuen giroari esker, euskal kulturaren harra sartu zitzaion. Bertsozalea da, eta bertso paperen bitartez, euskara irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Zeruko Argian idatzi zuen 60 eta 70. hamarkadetan inguruko kontuez, Basarrik animatuta. Euskal kulturaren bultzatzaile, Euskal Jaiak, bertso saioak eta antzerki emanaldiak antolatzen jardun du.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Baserria

#### 1.1. Baserriko erremintak I

- **Hizlaria(k):** Txakartegi Zendoia, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Erref:** MDX-006/001
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Baserriko erreminta batzuen erabilera azaltzen du: aitzurra, aitzurkulua, aitzur zabala, mazoa, laia, goldea, golde txikia, golde nagusia, area, are txikia, are nagusia, alperrarria eta hesia.

#### Transkripzioa

Lelengo baserriko tresna edo erremintxi nik pentzeten dot atxurre ixengo dala. Atxurre, atxurkulie da atxursabala guk esatentzaune. Atxurkulias, ba, lurre atxurtu eiten da, astindu te... Atxursabala, ba, potxijjek eitxeko edo jorratzeko, landari jorratzeko, sartzeko, da olan erabiltxen da atxursabala. Da gero, ba, masue, sokille joteko, masue erabiltxen da, lurre apurtzeko, haustzeko.

Da gero, ba, laijjie, arreskero laijjie etorriko san gero ta laijjie, ba, lurreri buelta emoteko, lur soiije bueltetako bedarra ta sikiñe, ba, aspire sartzeko laijjatu eitxesan lenao.

Da gero, goldie arreskero, laijje eskus ein biar ixetasana, ba, goldie ganadukin erabiltxesan: golda txikijje, norberak saindu biar ixeteban; asta bat eukitxeban kolpeteko da andik saindu ein biar ixetesan golda txikijje.

Da gero golda nagosijje, arreskerokue, golda nagosijje. Golda nagosijjek burpillek eukitxebazan da bera ibiltxesan gurpillen ganién ganaduk aurretik si'la, egalien ba norberak jartien, norberak bueltau biar ixeteban goldi, molla bateri sakatute, buelta emon goldiari txebijjen bitxartien akulu artu eskun de trankill jutesan, nasai, baserritxarra, jartien, ba axe, bueltau... besterik es.

Da gero, ba, arie: lurre apurtzeko, ba, ara txikijje ta ara nagosijje. Ara

txikijje ixetesan, ba, goldadue ta arrek apurtzeko, ba, ara txikijje; egurresko <<etxie» eukitxeban, ortzak -burdiñasko ortzak da arepa apurtu eitxeban, da baitxa, saskari' batzeko edo galtzu onduen saskañe batzeko ta be, ara txikijje erabiltxesan.

Ara naosijje, ba, goldadu aurretik eta, mamiñe eitxeko soluen erabiltxen da ara naosi'; burdiña utze, burdinesku ixeten da. Arek astertu eiten dau pixkat lurre; ara txikijjek es; ara txikijjek ortzakin zeetu eitxen dau baiña es tau, astertu estau eitxen lurrik. Ara naosijje' pai, ara naosijje burdiñesku' dales astertu eiten dau lurre.

Da gero alperra. Alperra, ba, sokille apurtzeko alperra gero, ganadukin... masu baiño erresao da sokill andijje apurtzeko, ba, alperra: egurreskue «etxie», egurresko «etxie» ta bera arrjje, alper arrijje, ba, arrijje ixetesan. Da esijje be bai. Esijje ixetesan, ba, sokill txikijje doan lekuen ero esijje... autxe aitxeko. Esijje, ba, etxin eitxesan. Ekarri basotik uretx sepak, egurre... take' batzuk sartu de bertan biurrekin biurtu te bertan etxin ein eisijje. Ori ixetesan, ba, ara txikijje ipini gain'n, arris kargau de tatarres ibiltxen ganadu'k... erabiltxe. .. de autz eiteko lurre, austuteko.

## 1.2. Baserriko erremintak II

- **Hizlaria(k)**: Txakartegi Zendoia, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erkiaga, Josu
- **Erref**: MDX-006/002
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:03:01. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Baserriko erreminta batzuen erabilera azaltzen du: nabarra, bostortza, igitaia eta gurdia.

### Transkripzioa

Beste erremintxak, ba, nabasaijje be bai. Ixeten da, ba. .. errestu eitxen dau arek, erretena eitxen dau da bertara artu ereitxeko be ondo eitxesan lenao, artu be eitxesan bertara. Lurre astertu eiten dau arek, nabasaijjek. Bestie, bostortza, txarrena esateutze batzuk, baiña bostortza esatentzau guk. Arek estau astertzen lurrik; arek mamiñe eitxen dau baiña estau... astertu barik eitxen dau, bostortzak.

Bedarra ebateko lenao, ba, itaijje erabiltxesan. On segie ta kodaiñe-edo. Ta eru teko, ba, burdijje, bedarra eruteko da simaurretako-ta... burdijje. Burdijje, ba, egurresko, burkanie ta burpille' pe egurreskuek lenao, berton einde, arotzak berton eitxeben: tira batzuk txapaskuek, burdiñezko tira batzuket de uela bueltan, burdiñasko eulas; da pertikie, espatie da ardatza, ...astuek eukitxebasan... egurresko astuek lenao da soiñue jo eraitxeutzen lenao ganera burdijjari... arriotarako ta erutebesenien. .. txiliñerakin de beijjek, txiliñerakin de, sapak eta borlak, euren borlakin de beijjen burutako narrue, ardi narruas eitxeutzen...



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com